



Opor olinpikoak

Maidar Unda eta Aitor Rementeria Txinan



UDAL EUSKALTEGIAK

WANTED



- 16 urtetik gorako pertsona
- Oizona edo amaiaumea
- Jatorrizkoa edo etorkina
- Akaslea, ingeleza, ingeles edo judaizoa
- Eta... euskara ikasteko behar, gogo edo borondatearekin




www.udaleuskaltegiak.net

27 urte euskara irakasten, Maila guztiak, 43 zentro, **HABEko** diplomak. Ordutegi pertsonalizatuak. Bekak...

Matrikula Zabalik

Arretzaletza | Armasak | Argentia | Berezia | Biegosa | Deba | Elkar | Elgoibar | Errenderia | Eskerriola | Errezia | Ezkerralde | Ibañeta | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea | Ibañeta-Ordea

Matrikula Zabalik

08-09 IKASTURTEA

Titulu ofizialak

Ikastaroak

- Aurkezgarriak
- Autokontzentz
- BOGA
- Mendeak

Ikastaro bereziak

- Enpresa
- ASA ESKORRIK
- Lanbidearen Guraia
- Merkatariak



Euskara

Azterketetarako prestaketa

- Peritak (Osakidetza, Hezikuntza, MAP...)
- HABEren 1, 2, 3 eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULALDIA: Irailaren 1etik 26ra

DIRU LAGUNTZAK - BEKAK

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30



25.

Urteurrena




www.udaleuskaltegiak.net

DEBASTE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Garaia eta 20079 ELGOIBAR
 telefonoa: 943 74 27 35
 e postak: egoi@urteurrena.gipuzkoa.net

TXANKAKUAREN VIII. FERIA



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

2008ko irailak 20 - LARUNBATA

Tokia: Foruen Plaza





Anima Zaitetz, zain gauzkazu!

Dirulaguntza:



EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO BARRA



Elgoibarko Udala

11:00etatik 14:00etara

- + Produktu/zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
- + Haurrentzako puzgarriak.
- + TXU-TXU trenaren herrirako kaleetan zehar.
- + Begirale taldea (Elgoibarko Izarra).
- Haurrentzako jolasak eta eskulanak.
- Makillajea, marrazketa, txapak eta jolasak.
- + TXANKAKUA VISA TXARTELAREN stand-a.
- Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.
- + OPARIA
- Irailaren 15 eta 20an, elkarterako edozein dandatan egindako erosketatik gortetzen baduzu (erosketatik bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzue plazaan tiketarekin aurkezteko (opariak bukatu arte).
- + Edari eta pintxoaren txosna.

13:30etan

- + 600 €-ren zozketa.
- 100 €-ko 6 sari erosketarekin balleetan.

Mihia jan dizu katuak?

Hauxe da aurtengo ikasturterako AEK euskaltegiak aukeratu duen leloa, eta ikusteaz batera etorri zitzaidan burura. Zenbat bider entzun behar izaten genuen umetan, gurasoen lagun edo ezagunekin, baina guretzat ezezagunekin, tope egindakoan; zer edo zer galdetu eta guk erantzuten ez genuenean, guk galdetutakoari erantzuten jakin arren. Auskalo zer izaten den buruan jarrera hori hartzeko!

Eta hauxe bera etortzen zait burura euskaldunak, euren artean, erdaraz berba egiten entzuten ditudanean: zer dela-eta ez ote dute euskaraz jarduten? Umee-kin dabilzanak, guraso edo zaintzaile izan, ez ote dira konturatzen umee-kin ere jarrera horixe hartzen dutela? Jendearekin harremana duten lanetan dihardutenak ez ote dira ohartzen, batzuen ustez behintzat, irudi kaskarra ematen dutela? Auskalo zer izaten den buruan jarrera hori hartzeko!

Jarrera honek, euskara ez erabiltzeak alegia, ez dabilen urari gertatzen zaion moduan, mekanismoak ugertzen ditu, eta erabili nahi denean, ezintasuna igartzten denez, errekueratu nahi izanez gero behintzat, euskaltegiara jo behar.

Egia da AEK euskaltegian honelako bezeroak ere izaten ditugula, eta saiatzen garela galdu dutena berreskura dezaten eta ugerraren aurkakoa ematen.

Hau irakurrita, gu-re aititak esaten zuen moduan “danentzako perixa txarrik ez da”, pentsatuko duzue, hau da, zergatik kezkatzen nauen jarrera horrek, lana ematen badit. Bada, nahiago nuke, ugerrik sortuko ez balitzaie, euskarak eta euskaldun berriek eskertuko lukeketelako.

Amaia
Larrañaga



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Euskara ez erabiltzeak mekanismoak ugertzen ditu,
ez dabilen urari gertatzen zaion moduan”

BIDALI ZURE GALDERA

ARNALDO OTEGIRI

**Datorren astean
Arnaldo Otegi
elkarrizketa egingo diogu**

Galderak bidaltzeko azken eguna,
irailak 15

elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



**“Gogorra
baino gehiago,
intentsoa izan
da Barajasko
senideekin
egotea”**

MIKEL LIZARRALDE

PSIKOLOGOA ETA GURUTZE GORRIKO BOLUNTARIOA

Hainbat psikologok jardun zuten kaltetuen senitartekoei lagun egiten Barajasko hegazkin istripuaren ondoren. Tekniko horietako bat elgoibartarra dugu, Mikel Lizarralde. Gurutze Gorriaren deia jaso, lanean baimena eskatu eta Madrilera jo zuen. Biharamunerako Madrilgo erakustazokan zegoen. Euskal Autonomia Erkidegotik hara joandako psikologoaren bizipena erabat intentsoa izan zela aitortu du. Izan ere, psikologoaren lehenengo txandan parte hartu behar izan zuten. Lizarraldeak itsasoan galdutako senideekin-eta jardun izan du, baina hain dimentsio handiko ezbehar batean parte hartu duen lehen aldia izan da.

Barajasko istripuan hildako senitartekoei laguntza psikologikoa ematera joan zinen. Nolatan?

Duela lau urte Euskadin sortu zen Gurutze Gorriko talde bat, emergentzia egoeretan laguntza psiko-soziala eskaintzeko. Talde horretan boluntarioa naiz. Barajasko ez da talde horrekin egin dudan lehen interbentzioa, baina bai mediatikoena. 2004tik gabiltza horretan lanean.

Orduan lehenago ere jardun duzu horrelako zereginetan.

Horrelako dimentsioko egoera batean parte hartzen dudan lehen aldia da. Lehenago itsasoa desagertutako pertsonekin egin dut lan batez ere.

Madrilen istripua gertatzean, deia jaso eta berehala joan zinen?

Madrilen biltzen da koordinazio taldea eta esaten du zenbat pertsona behar dituen. Horren arabera, autonomia erkidego bakoitzak zenbat lagun eskaintzen dituen aztertzen da. Euskadik bederatzita pertsona ditu, Kataluniak 30 eta beste leku batzuek beste batzuk. Horrela jartzen da martxan.

“Donostiatik Madrilerainoko bidaia oso luzea da mentalizatzeo”

Eta taldeak koordinatu eta lana banatuko dute orduan, ezta?

Hori da. Gu heldu ginenean, Ifeman hiru areto zeuden eta bakoitzean alfabetikoki ordenatu zituzten familia guztiak. Laneko hiru txanda daude: goizez, arratsaldez eta gauez. Nik egin nuen goizeko turnoa, istripua gertatu eta geroko turnoa. Euskadikoak sala konkretu batean geunden, Utik Z-rainoko familiekin. Gu Madrileraino goizeko lauretan heldu ginen, eta Ifemara 7.30etan.

Berehala, orduan. Mentalizatzeo eta prestatzeo denbora gutxi.

Baina Donostiatik Madrilerainoko bidaia oso luzea da mentalizatzeo. Heldu ginen eta informazioa pasatu ziguten. Niri toka-

tu zitzaidan gure aretoaren koordinazioa. Orduan familiak “banatzen” hasi ginen: tekniko bakoitza familia batekin. Zure familiarekin aurretik egon denak pasatzen dizu informazioa; bestela egon behar duzu gauza bera galdetzen etengabe. Niri ez zidaten informazioa pasatu, oraindik familia batzuk ez zirelako heldu edo enteratu. Jardun genuen lehenak gu izan ginen.

Horrelako ezbeharren bat gertatzen denean zein da psikologoaren lana?

Batetik, dauden erantzun eta erreakzioak nolabait normalizatzea, kontestuan jartzea. Familiari esan behar diozu zertara zoazen. Askok pentsatzen dute zu zoazela daukaten sufrimendua desagertarazteko, eta sufrimendua pasa egin behar dute. Nire familiak lau pertsona galdu zituen: bikote bat eta lau eta sei urteko bi haur. Orduan sufrimenduak egon egin behar du. Zuk sufrimendu hori normalizatu egin behar duzu: “Normala da daukazuen erreakzioa”, “ez zaitezte kezkatu”, “blokeatuta gelditzea normala da”, “etxeko giltzak non utzi dituzun ez jakitea ere normala da”... Bestetik, prozesua nola doan esan behar dugu: “Orainxe identifikatzen dabilte, ez dakigu ezer”, “lasaitu zaitezte”, “esan digute Spainairkoek arratsaldean bilera egingo dutela zuekin...” Eurak oso txokatuta zeuden eta ez ziren gertatu zen guztiaz ohartu. Horrez gain, deskantsatu, ura edan eta horrelakoak egin dezaten arduratu; gainean egotea. Gero, gorpua identifikatu behar badute, aurretik esan behar genien ikusiko zutena oso gogorra izan zitekeela: “Ez da zuek gogortzen duzuen, istripuaren ondorioz gertatzen den emaitza baizik”.

Une horretan gehien-gehien zer behar du familiak?

Informazioa. Batez ere, zaurituen zerrenda bat geneukan: familiakoa zerrenda horretan ez badago, beste alternatiba argi dago. Hala ere, gizakion baldintza hau da: albiste konkretua jasotzen ez duzun arte sinistea kosta egiten zaizu. Informazioa behar dute, eta konfirmatzea.

Aurkitutako gorpua senitartekoarena dela jakitea, alegia.

Batez ere, nahi dute pertsona batek (epaileak edo forenseak) esatea “zuen semea (edo alaba edo bikotea...) hilda dago”, behingoz dolu prozesuan sartzeko.

Boluntarioontzat ere bizipen gogorra izango da. Laguntza psikologikorik behar izaten duzue gero?

Horrelako jarduerak bukatzen direnean, Gurutze Gorriak zerbitzu bat dauka: denok elkartzen gara eta bizi izandakoa bateratzen dugu, hitz egiten dugu, eta izandako *rollo* txarrak azaldu. Niretzako ez zen gogorra izan, niretzako oso intentsoa izan zen. Zera pentsatzen duzu: niri ez zait gertatu, ni hona etorri naiz lan hau egitera. Nahiz eta gogorra iruditu, nire ustez onena horrela ikustea da. Sufrimendu maila handia da, eta gertatutakoa, gogorra. Deskantsatzen saiatzen zara, noizbehinka zeozter jaten, edaten, zure taldekoekin saiatzen zara ez hitz egiten gertatutakoaz, deskonektatzen. Baina ez da erraza: gure salan berrogei bat pertsona zeuden, negarrez ia denak...

“Sufrimenduak egon behar du. Sufrimendu hori normalizatzeo gaude psikologoak”

Zenbat denbora eman zenuen?

Egun oso bat. Guztira hamabi ordu.

Identifikatzeko denbora gehien behar zuten gorpuen senitartekoei luze zuten han, ezta?

Hainbat talde etorri ziren, Estatu hainbat lekutatik. Euskadikoak egon ginen lehen une horretan eta lana oso intentsoa izan zen. Orduan erabaki zuten gero jai ematea.

Gurutze Gorrian zein da zure lana?

Ni Gurutze Gorrian boluntarioa naiz. Lan profesionala beste enpresa batean daukat, Urgatzi taldean, adin txikikoekin. Gurutze Gorrian, noizbehinka ambulantiaren bat hartzen dut eta horrelako jarduerak egiten ditut. Lehen egiten nuena, gutxi gorabehera. Gazteen Gurutze Gorria utzi dut: gazte izatea gero eta urrunago gelditzen zait, baina lehengoa egiten dut, Donostian.

Beste zerbait esan nahi duzu?

Enpresari eskerrak eman nahi dizkiot, lan egun batean utzi zidalako Madrileraino joaten, ezertxo ere deskontatu gabe.

TXINATIK PERURA



Amaitu zaizkio jende gehienari oporrak. Egon hamaika aukera eta modu daude oporrak pasatzeko, baina elgoibartar batzuek abuztuan egindako bi bidaia jaso ditu BARRENEk, arruntegiak ez direlako. Batetik, Aitor Rementeriak Txina ezagutzeko aukera izan du, neska-lagunak Olinpiar Jokoetan lehiatu behar zuela aprobetxatuta. Bestetik, Elgoibarko gazte koadrila bat Perun izan da, mendirik mendi.

Oier Narbaiza

Pekingo Olinpiar Jokoak ikusten jardun du Aitor Rementeria elgoibartarrak. Izan ere, bere neska-lagunak, Maider Unda aramaiorak, han lehiatu zen, emakumezkoen borrokan. Maiderren konpetizioa ikusi eta, bide batez, Txina ezagutzeko aukera izan zuen Aitorrek. “Egun asko ez dut eduki eta nahiago izan dut turismoa egin”, azaldu du. Denbora zati bat bakarrik ibili da.

Abuztuaren 9an irten zen Aitor Txina aldera eta 26an itzuli. Lehen egunak Shanghai eman zituen. Bost egun. Handik, Pekinera.

Kontraste handiko hiria topatu zuen Shanghai. “Ez nago egonda New Yorke, baina horrelako etxe handiak daude Shanghai, errekaen alde batean. Bestean, Shanghai zaharra dago”, dio. Behar bada, Txinaren irudi zaharkitua zeraman bu-

ruan, eta beste zerbait espero zuen: “Aireportutik zentrura joateko tren bizkorra dago, orduko 430 kilometrora doana”.

“Nik ikusi dudan Pekin eta orain dela lau urtekoa oso ezberdinak izango dira”

Atseden hartu ondoren, hirian ikusi zuen lehen gauza etxe-orratz horietako bat izan zen. Dorre baten gainetik paisaia ikusteko aukera izan zuen.

Shanghai leku bero eta hezea bada, Pekingo klima samurragoa da. 2.000 kilo-

metro inguruko tartea dago hiri bien artean. “Hegazkinez egin nuen bidaia”. 15ean heldu zen Pekinera, Maiderren konpetizioa baino bi egun lehenago, badaezpada.

Ez zuen lo egiteko lekua erraz topatu. Olinpiar Jokoak zirela eta, hotelen tarifak ikaragarri garestiak ziren. “Azkenean albergean ordaindu dezaket”, pentsatu zuen.

Segurtasun neurri handiak

Pekingo segurtasun mailak zur eta lur laga zuen. “Metroan sartzen zinen bakoitzean, poltsak aireportuan moduan begiratzeko zizkizuten, makinan”. Konpetizioak egiten ziren estadioetara sartzeko, poltsa denak sartzen zituzten eskanerrean eta gero ireki; gainera, jende guztia katxeatzen zuten.

Pekingo hiria bera asko gustatu zitzaion. “Han dena da handia”, dio Aitorrek: Hiri Galdua, Tiananmen plaza, etorbide-



Goian, Aitor Rementeria Hiri Debekatuari egindako bisitan. Ezkerreko irudia Zeruairen Tenpluan ateratakoa da.

ak... "Nik ikusi dudak Pekin eta orain lau urteko Pekin oso ezberdinak izango dira. Aireportura ailegatu eta dena loreak, txukun-txukun, garbi-garbia...". Automobilaren trafikoa ere txikia eta lasaia zela ikusi du. Batez ere, taxi eta autobusak zebiltzan; auto partikularrak, oso gutxi. "Nik uste dut debekatuta zutela autoan ibiltzea Olinpiadak ziren bitartean", dio.

Hizkuntza dela eta, txinatarrekin hartu emana zaila da. Horrez gain, grafia txinatarrek zaildu egiten du komunikazioa, garraren bat hartzeko edo zerbait jateko. Aitorrek batzuetan plano bat eskuetan hartu eta taxistari atzamarrarekin erakusten zion nora nahi zuen joan. Eskerrak keinuen hizkuntzak ez duen mugarik...

Olinpiar Jokoetako antolakuntza oso ona izan dela uste du. Kompetizio guztietatik, Mainerren borroka baino ez zuen ikusi. Beste kirol batzuk ikusteko sarrerak lortzea

zaila zen, oso. Eibartar batek, esaterako, 500 euro ordaindu zituen saskibalo partida bat ikusteko.

Sarrera bila

Aitorrek neska-lagunaren konpetizioa ikusteko ordaindu egin behar izan zuen. "Pentsaizu, entrenatzaileak bere sarrera eta hotela ere pagatu egin behar izan ziotuen", argitu du Aitorrek. Azken batean, maila asko daude: Mainerrek Comite Olimpico Españolera jo zuen behin baino gehiegotan beste kirol bateko sarreraren bat lortzeko, baina eman ez; saskibaloikoek-eta, berriz, lortzen zituzten.

Era guztietara, ondo zaindu dute Aramaioko kirolaria. Apur bat penatuta ere egon zen hasieran, domina lortzeko borrokan egon ondoren, bosgarren postua lortu zuelako. Ez dago bat ere gaizki diplomarekin etxera bueltatzea.

BEGIRA-BEGIRA

Pekinen jende asko begira-begira gelditzen zitzaion Aitorri, umeak gehienbat, aurpegi ezberdina izateagatik. Jende asko hurreratzen zitzaion nongoa zen galdezka. Gazte askok, gainera, berarekin argazkia ateratzeko eskatzen zioten, kirolaria zelakoan.

TXINA, TXINA, TXINA!

Hango informatiboetan Txina besterik ez zen agertzen. Euren selekzioak lortutako dominak go-raipatzen zituzten. Aitorrek ez zuen Barajasko istripuaren inguruko informaziorik jaso han.

ILARARIK EZ

Txinatarrek ez dituzte ilarak errespetatzen. Ondorio hori atera du Aitorrek. Izan ere, metroko makinaren aurrean denak aurretik pasatzen zitzaizkion, gauzarik arruntena balitz bezala. Metroan sartzeko ere denak hasten ziren elkarri bultzaka, irten behar zutenei lehentasunik eman gabe.

ESKALE GUTXI

Pekingo erdialdean behartsu gutxi topatu ditu, eta horrek harrituta laga du. Egin berri dituzten azpiegituretan jende askok parte hartu du, baina obra horiek amaitutakoan jende hori hiritik kanpo gelditu dela entzun du.

TXISTUA BOTATZEN

Han gauza normala da edozein leikutan txistua botatzea, inongo disimulorik gabe. Eskupiderak hoiteletan ere egoten dira.

ELGOIBARTARRAK PERUN



Peruko mendi gailur batean. Elgoibartarrak Huaraz inguruan ibili ziren, Cordillera Blanca mendikatean.

Elgoibarko lagun tade batek beste era bateko oporrak bizi izan zirenen: Peru aldera abiatu ziren mendian ibiltzeko. Ibon Gabilondo, Joseba Elustondo, Arkaitz Irureta, Andoitz Agirregomezkorta, Ion Urbietta eta Aitor Romerak parte hartu zuten bidaiari horretan, Gasteizko Leire Ibañez de Gauna eta Arrasateko Xabi Jauregirekin batera.

Uztailaren 25ean abiatu ziren denak, baina batzuk bi aste egin zituzte bertan, eta beste batzuk, hiru eta lau.

“Limara iritsi eta zuzenean Huaraz-era joan ginen, Cordillera Blanca famatuaren herri nagusienera”, argitu dute. Huaraz inguru horretan egon dira batez ere. Han Aritza Monasterio mendizale elgoibartarrarekin ibili ziren lehen egunetan.

“Lehenengo astean Huayhuash mendikatera joan ginen trekking bat egitera, mendiarekin kontaktua hartu eta aklimatazioa hasteko asmotan. Huayhuash oso bertikala eta basatia da, ikusgarria benera, baina gogorregia gure nibelerako”, aitortu dute. Gero tontorrek egitera jo zuten, Aritzaren laguntzaz. Ishinca (5.530m) eta Tocllaraju (6.034m) zapaldu zituzten. Hortik aurera euren kabuz ibili ziren, tal-

de bitan banatuta: Alpamayo (5.947m) zapaltzen ahalegindu ziren Xabi, Joseba eta Arkaitz, eta gainontzekoak, Chopicalqui (6.354m). Inork ez zuen gailurra lortu eta penatuta gelditu ziren, batez ere lehen taldekoak, oporraldia amaitu zitzaielako. Ion, Andoitz eta Aitorrek Pisco (5.752) eta Chopicalqui egin zituzten gero.

Inguruak ezagutzeko aukera ere izan zuten: termak, preinka kulturearen aztarnategiak, haitz eskaladako lekuak etab.

Segurtasun neurri handiak

Huaraz harrigarria iruditu zaie. Hango meatzeak batez ere. “Atzerriko meatzeak daude, kristorenak eta mendi tontoretan. Huarazeko jendeak ez du bertan lanik egiten, makineria berezia baitaukate eta manejatzen ez omen dakitelako (edo ez dietelako erakutsi nahi!). Huaraz 150.000 biztanletako herria izanik kotxe askorik ez da ikusten, baina meatzeko langileak beraien *todoterreno* handiekin dabilta hirian bueltaka, eta bizi ere aparte dagoen auzo batean bizi dira, gain batean”, azaldu du Arkaitz Iruretak.



Delfina Arriola Lete

2008ko uztailaren 7an hil zen

ESKERTZA

*Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean*

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





Plastikozko komun bat agertu da Deba ibaian: “King-Kong inguruan plastikozko komun urdin bat dago ibaian botata. San

Bartolome jaietan bota zuten, eta oraindik bertan dago; ez du inork atera. Ez dut uste hainbeste denbora behar denik horrelakoak ibaitik ateratzeko. Bota dutenek gaizki egin dute, baina ateratzea tokatzen zaionak ere patxaraz hartu du bere lana. Ibaia garbi izan behar dugu denon artean, eta natura errespetatu. Min handia ematen dit King-Kong paretik pasatzen naizen bakoitzean komuna oraindik ibaian ikusteak. Mesedez, dagokionak atera dezala lehen bailehen. Mila esker”.



Madalako bidegurutzean semaforoa apurtuta dago:

“Badira hamar egun inguru Madalako bidegurutzean semaforoa hondatuta dagoela. Ez dakit Udalak hori konpontzeko asmorik izango duen ala ez, baina inguru horretan bizi garenok faltan botatzen dugu. Jende gazteak arin ditu zangoak eta autoren bat etorri arren, erraz gurutzatzen du bidea. Guk, ordea, denbora gehiago behar dugu. Hamar minutu pasa egin nituen eguerdi batean bidea gurutzatzeko zain. Autoak ez dira geratzen, eta ez dute bide bazterrean zain dagoena errespetatzen. Denak presaka ibiltzen dira bazkalorduan eta minutu bat ere ez daukate oinezkoiei oparitzeko. Semaforoa ahalik eta azkarren konpontzeko eskatu nahi nuke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

Rufinok maite zuen euskara eta maite zuen pilota. Maite zuen joko garbia delako; maite zuen batez ere euskaldunen joko moduan ageri delako; eta maite zuen euskaldunei ohore ematen dielako :

Pilota, zuen bidez sarri euskaldunak bagarelako famak dituzte entzunak. Zuk eginak gaituzuden denen ezagunak. Asko zor dizu zuri gure nortasunak.



2008ko uztailaren 18an, 82 urte zituela hil zen Egun gogor hauetan jasotako laguntza eskertu nahi dizuegu danoi Rufino-ren etxeakoak

Lasai joan zara leku lasaiera maite gaituzula eta maite zaitugula jakinda **Ez zaitugu inoiz ahaztuko**



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Parte hartu, aldarrikau, gozau ta batez ere izan zeu!

Beste urte batez, Madalako Jai Batzordetik herriko jaiei gure ekarpen txoa egiten saiatu gara eta herritarrei festa gune aske bat eskaintzeko gure ahalegina egin dugu. Jaiak bukatuta, gustura geratu gara lortutako oihartzun eta erantzunarekin, nahiz eta badakigun hobetzeko gauza asko daukagula. Madalako Jai Batzordeak dituen mugak kontutan izanda, egitarau txukuna antolatzea lortu dugu, eta fin-fin erantzun duzue beste behin ere. Doazela gure eskerrik beroenak gune askean erabatean edo bestean parte hartu, aldarrikatu eta gozatu duzuen guztiontzat. Zuek gabe jai daukagu!

Hori dena posible egiten duten guztiei gure eskerrak banatzearekin batera, auzotarrei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, sortzen ditugun traba eta deserosotasun guztiak ahalik eta ondoen eramateagatik. Bestalde datorren urterako Madalako parkean aurrakusten den proiektuaren aurrean gure kezka azaldu nahi genuke, eta proiektuan parte hartzeko gure prestutasuna eskaintzen diogu Udalari, guztion artean herritar guztientzako moduko gunea sortzeko.

Aurten, antzerkiarekin eta magiarekin ekin genien jaiei eta Arnaldoren bueltarekin bukatu zaizkigu. Gainditzen zaila izango den arren, lan asko daukagu egiteko, benetako jai herrikoi eta askeak helburu. Bide horretan ezinbestekoa izango da jendearen partehartzea

eta horregatik datorren urtera begira egitarau zein antolaketan herritarren ekarpenak, kritikak edo iritziak bidertzeko tresnak prestatzean daukagu erronketako bat. Besterik gabe, izan aske!

Madalako Jai Batzordea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutizik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:






Andres
Alberdi

Uste baino lehenago iritsi zaidak lagunarteko ika-mika dialektiko honetarako txanda. A zer onura profi-

laktikoa duten oporrek! Hitz emandakoak eta egin beharrekoak ere ahaztu, alajaina! Abuztuaren azken astean oraindik, egia aitortze aldera, nekeza gertatu zaidak ordenagailuaren aurrean eseri eta idazten hasi beharra; oporretako egunak gozo, lasai, patxadatsu ari zaizkidak joaten (ihes egiten, hobeto esateko), eta atzera diziplina baten gurpilean sartzea, ba, kosta. Baina eguraldi eskasa egiten dik gaur kanpoan, euri eta haize, eta, tira!, gaitzerdi hala denean: Getariako hondartzarako astia BARREnerako tartetxoa bihurtuko diat gaurkoan.

“Gustura asko irakurri ditiat heure blogean idatzitako Kanadako pasadizoak”

Tartetxoa, nolana ere, ezingo diagu erabili harako metafora libidinoso haien modukoak osatzeko (Eu no sé si estaba meta-fora, meta-dentro), hori zela eta, belarritik tira egin zidaan-eta Errosario kaleko adiskide jator dudan Mirentxu Belokik, “viejos verdes” ginela aurpegi-ratzen zidala haserre antzean. Tumatxa, Angelo: fraideak eta... agure lizunak ere bai! Azken alditik hona, jakinarazi nahi diat irakurri ditudala heure blogean idatzi dituan Kanadako pasadizoak, gustura asko irakurri ere, hala nola, adina tarteko, bisonte eta karibuen atzetik ibili ezina; bazterrak goitik ikusi nahi, eta hegazkinaren hegoa paretik kentzen ez zenekoa; Basterretxea abizena bastardo hitzarekin gaizki-ulertzeko arriskuarena, eta beste hainbat. Bazekiat ondo ibili zaretela ere. On degizuela luzaroan! Orain ikasturte berria diagu zain. Ea probetxuzkoa zaigun.



Anjel
Ugarteburu

Laster heldu dok, bai, hurrengo txanda hau ere, epe jakinak berarekin duen zurruntasunez. Eperik ez izatea edo ez jakitea, bederen, izango dok eternitatea, ziur asko. Halaxe bizi gaituk, betiko garelakoan. Diziplinak geure benetako mugen berri ematen jeuskuk, ostera. Hilabete eta erdirako epea gendukan Kanadan ibili eta hango inguru berde, urdin eta zuriez gozatzeko. Berdetasunaz, ez berdekeriez, gozatzeko aukera ederra izan dok. Epea, baina, beti gozamina izorratzeko prest. Bete ziren egunak eta honantz hegaldatu behar.

“Ez jagok Kanadaraino joan beharrik gure bizitza bera den bidaia honetaz gozatzeko”

Aurkitu juat, halanda be, epeari adarra jotzeko aukera eta horrek denboraz gain hegaz egiteko parada eman. Egutero idatzi joazat BARREnek eskainitako blogean gure ibileretako konturik freskoenak. Orain edonoiz eta nahi bestean luza geinkez gure bizipenik ederrenak, horri esker. Uztailearen 1. astera artekoak ondo ailegatu zituan, baina geroko beste hainbeste eta gehiago bidean geratzen. Bueltan etortzen zituan “no entregable” zirela eta. Ez jakixat arrazoi zehatza zein izan zeikean. Kontua dok ez zirela iritsi, ni saiatu arren. Ez juat, baina, amore emango. Danak dagozak idatzita eta, batez ere, gure bihotz-gogoetako kutxatiletan gordeta. Irakurle izan zaretengonantz ere bazuan asmoa eta, beranduago bada ere, izango duzue horretarako aukera, partekatzea gauza ederra dok eta. Dena den, epe guztien gainetik dagoen ohar txo bat: ez jagok Kanadaraino joan beharrik gure bizitza bera den bidaia honetaz gozatzeko. Hurrekoaz gozatzen ez dakianak ez jok urrunekoaz ere gozatuko. Egon ziur. Bajekagu aurtan ere alkarrekin egin beharreko bidaia eder bat, bakera eramango gaituen bakezko bidea. Ailedi guztien gozamenerako!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Ongi-etorri beroa egin zioten ezker abertzaleko kideek Arnaldo Otegi joan zen zapatuan Plaza Handian

Beste negoziazio bat irekiko dela adierazi zuen ezker abertzaleko kideak

Ehunka lagun bildu ziren joan zen zapatuan, irailaren 6an, Plaza Handian Arnaldo Otegi ongi-etoria emateko. Elgoibarko ezker abertzaleak ekitaldi xumea antolatu zuen herrikidea herrian hartzeko, baina ekitaldiak oihartzun handia izan zuen eta Euskal Herriko leku askotatik etorri ziren ezker abertzaleko kideak. Komunikabideen presentzia ere handia izan zen, eta Plaza Handia jendez lepo zegoen.

Ongi-etorri beroa

Ezker abertzaleko kideek ongi-etorri beroa egin zioten Arnaldo Otegi, Martuteneko kartzelan hamabost hilabete eman ondoren. Kalean agertu bezain laster, txalo eta besarkadek txalaparta doinuekin bat egin zuten. Arnaldo Otegi irribarretsu igo zen oholtza gainera, aurrean zituen lagun guztiak agurtuz. Eskenatoki demokratikoa lortzeko beste negoziazio bat irekiko dela esan zuen. Gatazka gainditzeko laneanjarraitzeko asmoa duela esan zuen eta konpromiso horri eutsiko ziola, presoak kalera



ateratzea lortu arte. Izan ere, hainbat medioren arabera, Otegi politikara laga egingo du. Plaza Handiko ekitaldiaren ondoren, Elgoibar Ikastolako frontoian egin zuten afaria. Hurrengo egunean, Italia aldera abiatu zen Arnaldo Otegi astebeterako.

Beste presoak gogoan

Juan Mari Mendizabalek eman zion Arnaldo Otegi Amnistiaren giltza, baina

ez zituzten herriko beste bi presoak ahaztu. Mikel Ibañez eta Sebas Etxanizen senideak ere gonbidatu zituzten oholtza gainera, eta bi horien askatasuna aldarrikatu zuten.

Ongi-etorriko bideoa ikusteko:
www.elgoibarren.net

Emakume eta gizonen berdintasunerako plana urte amaierarako egongo da prest



Goiatz Miguez, Alfredo Etxeberria eta Bittori Zabala berdintasun planaren aurkezpenean.

Elgoibarko Udalak emakume eta gizonen berdintasunerako planaren lehenengo zirriborroa aurkeztu du aste honetan. Herriko egoeraren diagnosa egin ondoren, alor bakoitzeko indargune eta makalguneak identifikatu dituzte, eta beharren arabera helburuak zehaztu dituzte. Horretarako, herriko hainbat agentek (osasun zentroa, ikastetxeak, Udal teknikariak...) betetako galdeketak eta hainbat alorretako emakumeekin (kultura, kirola, hezkuntza, osasuna, politika...) eginiko bileran jasotako informazioa erabili dute.

Hasierako txosten hori Udalaren web gunean (www.elgoibar.org) edo Herritarren Arretarako Bulegoan eskuratu daiteke. Herritarrek txostenari ekarpenak egiteko aukera izango dute irailean zehar, eta ekarpen horiekin behin betiko txostena gauzatu dute. Ondoren, Osoko Bilkurak onartu beharko du. Goiatz Miguez berdintasunerako teknikariak, Alfredo Etxeberria alkateak eta Bittori Zabala berdintasunerako zinegotziak azaldu zutenaren arabera, urte amaierarako emakume eta gizonen berdintasunerako plana prest izango da.

Lekua **Ermuaranbide**



Ermuaranbide kalean espaloia egiteko obrak hasi dira, dagoeneko. 230 metroko luzera izango du espaloi berriak, eta bi metroko zabalerakoa izango da. Argiztapen berria jarriko da ibilbide guztian zehar, eta ura bideratzeko kanalizazioa ere berri-itu egingo da. Udalak 338.000 euro erabiliko ditu obra hori egiteko, eta leihateako oinarrien arabera, bi hilabeteko epean amaituko dira lanak.

Zenbakia **79**

Cybereuskadi webguneak Euskal Herriko enpresa zaharrenen zerrenda egin du eta Elgoibarren dagoen Unceta enpresa zerrenda horretako 79. postuan agertzen da. Juan Pedro Uncetak 1874an ireki zuen burdindegi xumea, kalitatezko erremintak merkaturatzen dituen talde indartsua da egun. Zerrenda horretan 1850. urtean sortutako Chocolates de Mendaro Saint-Gerons enpresa ere aurkitu dugu, 32. postuan. Zerrendaren egilearen arabera, Hoshi Ryokan hotel japoniarra da munduko enpresarik zaharrena; 718. urtetik dago irekita.

Irudia **Madalako petrila**

Hector eta David Garrido anaiek omenaldi txikia egin zioten Madalako petrilarri San Bartolome jaietan, eta 800 pegatina atera zituzten euskaraz, gaztelerez eta ingelesez, petrila zati bat apadrinatze eskatuz. Udalak Madalan egingo dituen obrei buruzko informazioa ikusi zutenean hasi zen guztia. Proiektuan ikusten den bezala, Madalako petrila kentzeko asmoa du Udalak, eta bi anai hauek omenaldi txikia egin nahi izan zioten, "azken batean elgoibartar guztiok eman ditugulako orduak petrilean eserita". Txiki egunean atera zituzten pegatinak, eta herritar askok eraman zituzten soinean, tartean, Alfredo Etxeberria alkateak.



Helduen Alfabetatze Eskolan matrikula zabalik

Helduen Alfabetatze Eskolak ireki du ikasturte berrirako matrikulazio epea. Interesatuak irailaren 16ra arte eman dezakete izena 943 740 880 telefonoan. Besteak beste, alfabetatzea, kultura orokorra eta DBHko graduatua lortzeko eskolak eskainiko dituzte.

Begirale titulua ateratzeko ikastaroa

Gazteria Sailak begirale titulu ofiziala ateratzeko ikastaroa antolatu du. Parte hartzeko hamazortzi urte edukitzea, euskaraz jakitea eta Elgoibarren erroldatuta egotea eskatzen da. Izena emateko epea irailaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago Gazte Informazio Gunean (943 741 461).

1948koen kinto bazkaria

Bazkaria egingo dute 1948an jaiotakoek irailaren 20an Sigma ja-tetxean. Interesatuak Euskadiko Kutxako 30350007240071045966 kontuan 65 euro sartu beharko dituzte hilaren 18rako. Informazio gehiago 943 742 216 (Julian Mujika) telefonoan.

Miski elkartearen zozketa

Miski elkarteak bi lagunentzako 22 afari zozketatu ditu, Peruko umeentzako dirua biltzeko kanpainan. Hauek dira zenbaki sarituak: 4.269, 158, 723, 3.033, 1.499, 2.256, 1.737, 494, 5.401, 3.503, 2.300, 219, 4.963, 4.652, 2.793, 44, 3.795, 5.127, 27, 1.102, 3.461 eta 5.302.

Txankakuaren zozketa

Txankakuak Nazioarteko Folklore jaialdian eginiko zozketako irabazleak ez dira azaldu oraindik. Irailaren 15ean amaituko da epea. Agertzeko falta diren zenbakiak: 125 eta 49 (5 euroko sarreran), eta 1.046 (3 euroko sarreran). Bakoi-tzak 60 euroko erosketa txekea jasoko du.

BARREN astekariak 666. alea kaleratu du gaur, deabruarekin lotzen den zenbakia.

Superstizio berezirik badaukazu?



Miren Ramos

18 urte, ikaslea

Ez. Horrelako kontuetan ez dut sinisten eta ez diot garrantzirik ematen. Zorakeriak dira. Gertatu behar dena, gertatuko da, eta kitto! Nire inguruan badaude superstizioso batzuk.



Antonio Boyer

69 urte, jubilatua

Ez, sekula ez naute horrelako kontuek arduratu. Suerte txarra berez etortzen da, ez ezkerreko hankarekin jaiki zarelako ohetik. Gure etxean inor ez da superstizio-soa.



Mª Carmen Sanchez

58 urte, etxeoandrea

Ez. Lasai pasatzen naiz aldamioen azpitik eta ez zait inoiz ezer gertatu. Bolada txarrak izaten dira bizitzan, baina ez dut sekula pentsatu superstizioen ondorio direnik.



Victor Rodriguez

37 urte, administraria

Apur bat bai! Ez nago obsesionatuta, baina badaezpada saiatzen naiz katu beltzeekin ez gurutzatzen edo loterian beti zenbaki bera erosten. Zorakeriak dira, baina badaezpada...

10^{eko}
TXIKIAN



Mª CARMEN
RODRIGUEZ

Etxekoandrea

1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Herriko parkeak gustatzen zaizkit, Plaza Handia edo Madala adibidez. Errosario kalea, berriz, ez zait gustatzen, etxeak zahartuta daude eta iluna da.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein gustatzen zaizu gehien?

Madalako ingurunea. Errotonda berria eta Pedro Muguruzako etxeak oso politak geratu dira. Ingurune horrek asko irabazi du.

3. Zer falta zaio Elgoibarri?

Euria egiten duenean umeekin egoteko lekuak falta dira.

4. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Irekiak eta oso jatorrak, nik behintzat ez daukat inorekin komunikatzeko arazorik.

5. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Lan-egunetan edozein egunetan ekarriko nuke lagun bat herrira, baina asteburuetan ez.

6. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Jendea mugitzen da, baina nire ustez kontzertuetan txalo gutxi egiten da. Jendeak izugarri gozatzen du, eta jende asko joaten da kontzertuetara, baina txalo gehiago egin beharko lukete.

7. Gure herria euskalduna iruditzen zaizu?

Bai, ume guztiek egiten dute euskaraz eta nagusiek ere. Egia da kanpotik etorritako jende asko dagoela, ni neu ere Valladolidetik etorri nintzen eta ez dakit euskaraz, baina herria euskalduna dela uste dut.

8. Ahal izango bazenu joango zinateke beste herriren batera bizi izatera?

Borondatez ez, baina nire senarrak lana beste lekuren baten aurkituko balu, ez nuke arazorik izango.

9. Nor da elgoibartarrik famatuena?

Herrian bertan Txomin Mujika. Asko balio du, kontzertuetan ematen dituen azalpenak izugarri gustatzen zaizkit.

10. Ipini nota gure herriari, Otik 10era.

8, ni oso gustura bizi naiz hemen.

▶ Espetxealdi arindua etxean betetzeko baimena eskaini zioten Mikel Ibañezi

Donostia Ospitalea laga, eta espetxealdi arindua etxean betetzeko baimena eman zion Espainiako Auzitegi Nazionalak minbiziak jota larri dagoen Mikel Ibañez preso elgoibartarrari. Abuztuaren 8an jaso zuen elgoibartarrak ospitaleko senda-agiria, eta ordutik bere arrebaren etxean dago Deban. Ertzaintzak eskumuturreko telematikoa jartzeko eskaera egin zuen, Ibañezen mugimenduak kontrolatzeko, baina Auzitegi Nazionalako epaileak atzera bota zuen Ertzaintzaren eskaria. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek Er-

tzaintzaren jarrerara gaitzetsi egin zuten, eta horren atzean euskal presoen aurkako "mendeku nahia" dagoela adierazi zuten.



Mikel Ibañezen egoera egonkorra baina larria dela esan dute Amnistiaren Mugimenduko kideek, eta elgoibartarra behin betirako aske lagatzeko eskatu dute.

L A B U R R A K

Bederatzi urteko neska hil zen auto istripuan

Zamorako A-52 errepidean izandako istripuaren ondorioz, Nora Rey Nogales gaztea hil egin zen abuztuaren 11n. Manu Rey eta Emilia Nogales gurasoekin zihoan autoan istripua gertatu zen momentuan. Aita zihoan txofer, eta bat-batean autoa errepidetik irten egin zen. Gurasoei ez zitzaien ezer gertatu, baina bederatzi urteko neskak ezin izan zituen kolpeak gainditu. Familia oso ezaguna da herrian, eta hileta elizkizunera jende mordoak gerturatu zen. Neskatilaren heriotzak Elgoibarko herria atsekabetuta laga zuen.

Mozkortutako gidari bat atxilotu zuen Ertzaintzak San Bartolomeetan

Bederatzi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak abuztuko azken asteburuan Gipuzkoan, eta horietako bat Elgoibarren izan zen. Gidaria ihesi zihoan, aparkatuta zegoen beste auto bat jo ondoren. Alkoholemia kontrolean positibo eman zuen gidariak eta atxilotu egin zuten. Gainontzeko atxiloketak Irun, Usurbil, Arrasate eta Eibarren burutu zituzten.

▶ Oviedo inguruko zelai batean azaldu zen Altzolatik ihes zuen zapelatza

Zubibai elkarteak antolatuta, ehiza hegaztien erakustaldia izan zen Altzolan uztailearen 20an, eta aske laga zuten zapelatza bat ez zen jabearen besora itzuli. Abuztuaren 2an aurkitu zuten Asturias aldean. Oviedo inguruko berdegune batean agertu zen egarritz, kolpe handi batekin eta nekatuta, 300 kilometro inguruko hegaldia egin ondoren. Alberto Cedran hegaztiaren jabeak ez zuen uste zapelatza hain urrun iritsiko zenik, baina seguru zegoen agertuko zela.



▶ Maria Sainzek ehun urte egin zituen abuztuaren 15ean

Maria Sainz Sarobe elgoibartarrak ehun urte egin zituen abuztuaren 15ean. Mariaren esanetan, berak eginiko berakatz zopa da hainbeste urte hartu izanaren arrazoia. Jaiotzez Gareskoa (Nafarroa) da, baina Elgoibarrera ezkondu zen. Bi seme izan zituen, eta bost bilobaren amama da. 2005. urteaz geroztik Zarauzko Santa Ana egoitzan bi-

zi da Maria, eta orain dela bi urte, omenaldi txiki bat egin zioten egoitzako kide zaharrena izateagatik. Bere 100. urtebetetzean Elgoibarko alkatea Alfredo Etxeberria, Garesko alkatea, Foru Aldundiko ordezkariak eta senideak bildu ziren. Etxekoek Santa Ana egoitzakoei eskerrak eman nahi dizkiete Mariarekin izandako jarreragatik.



Gure berbak

Jan-edanaren esaera batzuk, Gotzon Garatek bilduak

Aurrekuan udako esaera batzuk ekarri genduzen hona, eta gaurkuan jan-edanaren (eta lanaren) inguruko batzuk ekarriko doguz, oporrekin eta jaixekin lotura haundixa daukela iruditzen jata eta. Gotzon Garateren "Atso-titzak" esaera-bilduma ederretik jaso dittut. Ondo jasotzen debe esaerok euskaldunon pentsamenduen, sentimenduen berri, jokaeraren eta izaeraren berri.

- Lana, ardaua eta jokua, neurrixan onak.
- Lan onak, uzta ona.
- Laneko errena, tabernarako lele-na.
- Lanerako azken, janerako lenen.
- Ez jan ta ez lan (ezertarako balixo ez dabanari esaten jako).
- Jan gabeko edanak kalte egiten du.
- Gitxi jatetik eta berba gitxi eitetik txarrik ez.
- Gaizki jan eta gaizki lan.
- Lana lagata bukatzen da (lanak ez dau azkenik, laga egin bihar).
- Hobe jaten gastau botiketan baino.
- Jan-edanaren gozoa, kontu emarenen gaiztoa.
- Bapo jan-edan ondorengo bidea askoz luzeagoa da.
- Edan eta jokua, etxea galdua.
- Edanago, egarriago (diru asko eta gehixago nahi).
- Edan eta gero egixak.
- Ez edan errekan, ahal badok iturrixan.
- Maitasuna, dirua eta eztula ezin dira ezkutau.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1969

Juanito Gorostizak laga digu aste honetako erretratu zaharra. Gure Bide elkarte-ko bazkideak ageri dira argazkian. Adin diferenteetako kideak dira, baina egun hartan denak batera egin zuten irteera Bizkaiko kostaldera. Gernikatik Arteagara joan ziren, eta bertan egin zuten bazkaria. Hantxe atera zuten argazkia. Arratsaldean, Ondarru aldetik itzuli ziren etxera. Juanitoren esanetan, argazki honetan ageri diren gazteak 1959an sartu ziren bazkide Gure Biden, elkarteari bultzada emateko. Gogora ekarri ditzagun:

Goian, ezkerretik eskumara: Bizente Berasaluze, Julian Agirregomezkorta, Jose Garagartza (†).

Bigarren ilaran: Fernando Medina, Guillermo Gorostiza (†), Manolo Gurrutxaga, Luis Oleaga.

Hirugarren ilaran: Gabriel Gabilondo (†), Pablo Eguren (†), Txus Arakistain, Javier Arregi, Enrike Martinez, Alberto Etxaniz (†) Txomin Loiola.

Laugarren ilaran: Jose Mari Ansola (†), Ramon Artola, Javier Gurrutxaga, Agustin Sagasta (†), Juan M^a Arretxe (†), Bittor Ortuoste (†), Enrike Arano (†).

Behian: Juanito Gorostiza, Mikel Gorostiza, Juanjo San Martin (†), Jose Inazio Elkoroiribe, Patxi Aranberri, Pedro Gabilondo, Jesus M^a Alvarez, Bernabe Mujika (†).



ESKERTZA



2008ko abuztuaren 16an hil zen *Florentino Sorazu Mendizabal* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Uztailean eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Maddi Agirre Barua
Ekainak 26
Iñaki eta Ikuska



Elaia Egafia Ofederra
Uztailak 1
Asier eta Olatz



Nahia Baskaran Beristain
Uztailak 3
Ekaitz eta Arantza



Naiara Antelo Rodriguez
Uztailak 3
Luis eta Veronica



Oscar Moreno Fernandez
Uztailak 13
Toni eta Maria Jose



Markel Larrañaga Peñaranda
Uztailak 18
Imanol eta Arianna



June Zubiaurre Correa
Uztailak 21
Javi eta Alazne



Gorka Agirre Armendariz
Uztailak 29
Aitor eta Susana



Eneko Jausoro Ariola
Uztailak 30
Iker eta Olatz




Aner Zinkunegi Sanchez
Abuztuak 5
Joseba eta Elsa




Almar eta Aitana Gonzalez Araujo
Abuztuak 19
Jorge eta Aroa




Malen Merino Corbillon
Uztailak 7
David eta Naiara




Paula Ledo Arnaiz
Uztailak 19
Manuel eta Laura



Sebastia Salvatierra Llanos
Uztailak 16
Rodrigo eta Ana



Adam Azarkan
Uztailak 19
Abderraffia eta Zohha




Nora Rodrigo Morales
Uztailak 29
Javier eta Sonia



Unax Uranga Abal
Uztailak 27
Ander eta Maria Jose




Leire Eizagire Arriola
Uztailak 29
Aitor eta Agurtzane



Irati Muñoz Ibarra
Abuztuak 28
David eta Olatz




Endika Carcedo Diez
Abuztuak 25
Raul eta Ainhoa



Almar Las Heras Sanchez
Abuztuak 7
Iñigo eta Amagoia



Yamina Bachiri
Abuztuak 6
Mostapha eta Dounia



Leire Iturriarte Labaka
Abuztuak 13
Juan Mari eta Miren

HILDAKOAK

- Martin Garagartza • 49 urte • Uztailak 1
Teresa Arrieta • 88 urte • Uztailak 2
Florencia Alberdi • 74 urte • Uztailak 7
Ana Unzueta • 97 urte • Uztailak 8
Rufino San Martin • 82 urte • Uztailak 18
Jose Berasaluze • 80 urte • Uztailak 23
Antonio Pedron • 77 urte • Uztailak 27
Nora Rey • 9 urte • Abuztuak 11
Jose Manuel Calvo • 87 urte • Abuztuak 13
Ramona Zubimendi • 85 urte • Abuztuak 14
Timoteo Juaristi • 84 urte • Abuztuak 15
Francisco Fidalgo • 84 urte • Abuztuak 15
Maria Loliola • 88 urte • Abuztuak 16
Florentino Sorazu • 92 urte • Abuztuak 16
Erundina Rogel • 78 urte • Abuztuak 17
Manuela Muelas • 85 urte • Abuztuak 23

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA



2003ko abuztuaren 3an hil zen *Margarita Eibar Urkidi* andrearen eta 2008ko irailaren 5ean hil zen *Aristides Guede Vila* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Giro bikainean ospatu zituzten San Antolin jaiak

San Antolin jaiak ospatu zituzten joan zen asteburuan Arriaga auzoan, eta giro ezin hobea izan zen. Jai Batzordeko kideek egitarau zabala prestatu zuten, eta jendeak erantzun ezin hobea eman zion antolatutako ekintzetan parte hartzen: herri kirolak, aizkora apustua, txakur erakustaldia, oliba hezur jaurtiketa, umeentzako jolasak, erromeria... Asteburuko irudirik bitxiak jaso ditugu orrialde honetan.



Bihurrik irabazi zuen Apraiz eta Ballibarren kontrako aizkora desafioa.



Amaia Agirre, Josu Oartzabal, Unai Muñoz eta Iker Zubeldia bertsolariek hartu zuten parte bertso afarian.



Txakur hezitzaileen erakustaldian lau txakurrek hartu zuten parte.



Marrakzi lehiaketan Unax Esnaolak eta Alaitz Egañak irabazi zuten.



San Antolingo jai batzordeko kideek gogotik egin zuten lan asteburuan.

ESKERTZA



2008ko abuztuaren 29an hil zen **Jose Luis Viteri Garay** jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



2008ko abuztuaren 15ean hil zen **Timoteo Juaristi San Martin** jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Donostiako Zinemaldiari buruzko zikloa eskainiko du Ongarrik

Irailaren 18an hasita, lau pelikula emango dituzte

Ongarri Zine Klubak, Udalarekin elkarlanean, Donostiako Zinemaldiari buruzko zine zikloa eskainiko du, irailaren 18tik aurrera. Lau pelikula emango dituzte, guztiak iazko zinemaldikoak.



Irailak 18 (22:15) eta irailak 20 (19:00 eta 22:15)
El baño del Papa (Uruguai)
(horizonte berriak saria 2007)

Irailak 19 (22:15), irailak 21 (19:00 eta 22:15) eta irailak 22 (21:30)
Aritmetica emocional (Kanada)
2007ko zinemaldiko sekzio ofizialeko filma

Irailak 23 (22:15) eta irailak 25 (22:15)
Encarnacion (Argentina)
Fipresci saria 2007

Irailak 24 (22:15) eta irailak 26 (22:15)
Buda explotó por vergüenza
Epaimahaiaren sari berezia 2007

San Bartolomeen balorazio positiboa egin du Udalak

Udaleko Kultura Sailak San Bartolome jaien balorazio positiboa egin du. Programazioan sartutako ekintza berriek harrera oso ona izan dutela aipatu dute, eta Plaza Handian antolatutako ekitaldietan aurreko urteetan baino jende gehiago ibili dela adierazi dute. Herritarrek zorion mezu ugari eman dizkietela aitortu dute, eta, era berean, Kultura Sailak elgoibartar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete jaiotan parte hartu eta antolakuntzan lagundu izanagatik.



Balorazio osoa irakurtzeko:
www.elgoibarren.net

Gaur, barixakua, itzuliko da Kiribil Plaza Handira

Kiribil barraskilo erraldoiari ere amaitu zaizkio oporrak, eta gaur, hilak 12, itzuliko da Plaza Handira. Euskal mitologiako lagunekin etorriko da Kiribil, eta jolas, dantza eta tailer berriak ekarriko dituzte umeentzako. Udako geldialdiaren ondoren, Kiribilka egitasmoaren hiru saio berri eskainiko ditu Elgoibarko Izarrak, eta lehenengoa gaur izango da, arratsaldeko 17:30ean. Gainontzekoak hilaren 19an eta 26an izango dira. Ikasturtea amaitzeko, urriaren 3an "Ane Monna Oskola eta karramarroi; ino, ino, ino badator Bonbardino" kultur ikuskizuna izango da Herriko Antzokian.

Euskal Kultura tradizionala ezagutzeko ikastaroa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, euskal kultura tradizionala ezagutzeko ikastaroa eskainiko du Juan Carlos Etxegoien Xamarrek. Urriaren 1etik abenduaren 3ra izango da ikastaroa asteazkenetan, eta saio bakoitza bi ordukoa izango da. Izena emateko epea irailaren 22an amaituko da. Informazio gehiago 943 741 626 (Imanol Larrañaga) telefonoan.

Ludoteka, gaztelekua eta gazte informazio gunean berriro martxan

Udako oporraldiaren ondoren, martxan dira berriro gaztelekua, ludoteka eta gazte informazio gunea.

- ♦ **Ludoteka:** astelehenetik barixakura (16:30-19:30)
- ♦ **Gaztelekua:** martitzen, eguazten, eguen eta domeketan (17:00-20:00), barixaku eta zapatuetan (17:00-21:00)
- ♦ **Gazte Informazio Gunea:** goizez; 11:00-13:00 (astelehen, eguazten eta barixakuetan). Arratsalde; 16:00-19:00 (astelehenetik barixakura).

Danbaka musika lehiaketa

Goienak antolatutako Danbaka musika lehiaketan izena emateko epea irailaren 19an amaituko da. Aurtengoa hirugarren edizioa da, eta Debagoienako musikariez gain, Debabarrena eta Durangaldeko taldeek ere hartu ahal izango dute parte. Izena ematen dutenen artean 24 talde aukeratu dituzte lehiaketarako. Informazio gehiago: www.danbaka.com helbidean.



JOSE ZABALA

Estropadetan zaletua

Kontxako Bandera jokatuko da domekan, eta aitzakia hori hartuta, Jose Zabala ekarri dugu gure artera. **Gazte-gaztetatik estropadetan zaletua** dugu, izan ere, **Orioko arraunlari baten lagun mina da-eta. Mendaron elkar ezagutu zuten mutil koskorrak zirela, eta gaur arte. Estropaden munduko hamaika istorio kontatu dizkigu.**

“Castrok irabaziko du aurten Kontxako Bandera”



Ezkerrean Jose Zabala (trajeduna) Orioko arraunlariek. Eskuman, iaz Aginagan egin zen omenaldian Jose Zabala arraunlari ohiek.

Nondik datorkizu estropadetarako zaletasuna?

Tiburzio Etxeberria Oliden arraunlaria Mendarora etorri zen hamabost urterekin, okindegi batean ofizioa ikastera. Ni okindegi haren parean bizi nintzen, eta lagun egin ginen, lagun minak. Ordutik anaiak bezelakoak gara. Gero itsas armadara joan zen soldadutza egitera, eta ondoren arraunean hasi zen Orion. Sarri jokatzen nintzen animoak ematera, eta orduantxe hasi nintzen estropaden munduan sartzen. Ordutik zazpi bandera irabazi ditu Kontxan; horietako bi Aginaga taldearekin.

Aginagak Kontxako bandera irabazi zuela 50 urte bete ziren iaz eta ospakizunera gonbidatu zintuzten. Nola bizi izan zenuen eguna?

Emozionantea izan zen. Berrogei urtean elkar ikusi gabe zeuden arraunlariek bat egin zuten ekitaldian, eta denok negarrez amaitu genuen. Laurehun lagun bildu ginen bazkaltzeko, eta oso ondo pasatu genuen. 1957an eta 1960an irabazi zuen Aginagak Kontxako Bandera. Orduan Orio baino gehiago zen Aginaga. Horrelako auzo txikia izanik Kontxako bi Bandera irabaztea sekular meritua da.

Hainbeste urteren ondoren, nola aldatu da estropada mundua?

Dirua sartu da tartean, eta kirola erabat aldatu da. Gaur egun diru gehien duenak irabazten du. Horretaz aparte, arraunlarien entrenamendua eta bizimodua ere oso diferenteak dira. Lehen arraultzak eta txuletak jaten zituzten batez ere, eta norberak bere kabuz entrenatzen zuten. Gaur, bakoitzak bere entrenadorea dauka, medikua eta dieta asko zaintzen dute.

Joango zara domekan Donostiara estropadak zuzenean ikustera?

Gonbidatu naute, baina ez naiz joango. Lehen urtero joaten nintzen hutsik egin gabe, baina orain nahiago dut telebistatik ikustea. Elgoibartik jende mordoa joango da. Herrian badago afizioa.

Nork irabaziko du Kontxako Bandera?

Castrok irabaziko du. Lan erdia dagoeneko egina dauka, 18 segunduko aldearekin. Hala ere, Oriok kalea ondo aukeratzen badi eta suerte apur bat baldin badauka, berak irabaziko du tanda nagusia. Bigarren Urdaibai eta hirugarren Castro, baina joan zen astean lortutako aldearekin, bandera Kantabria aldera joango da. Frantziako Tourra irabaztea bezelakoa da Kontxan irabaztea, arraunean dagoen saririk handiena da.

Areto futbol federatuak hogeitun urte beteko ditu aurtengo denboraldian

Gazteen taldeak osatzeko jendea behar dute

Hasi berri den denboraldia berezia izango da Elgoibarko areto futbolarentzat. Izan ere, aurtun hogeitun urte egingo dituzte. Urteik urtera, kluba handituz joan da: Nazional B mailan Kenci taldea daukagu, eta bera da klubaren oinarria. Bigarren taldea Gipuzkoako lehenengo mailan jokatzen duen Debarrena da, eta hark Eibarren jokatzen ditu partidak. Jubenil mailan, bestalde, bi talde daude: Elgoibar eta Asador Azitain. Denboraldi berriko, Elgoibar eta Eibarren kadete eta infantil mailako taldeak osatzea



da euren nahia. Horretarako, 1990, 91 eta 92 (Kadete) eta 1993 eta 94 (infantil) urtean jaiotako mutilek 628 933 504 telefonora deitu dezakete.

Elgoibarko bederatzi gizonezko eta bi emakumezko Getaria-Zarautz igeriketa proban

Getaria-Zarautz igeriketa probaren beste edizio bat jokatu zen uztaillaren amaieran, eta Elgoibarko ordezkariak ere izan ziren bertan. Herriko hainbat igeri zaletuk parte hartu zuten: guztira 11 elgoibartar izan ziren bertan, bederatzi gizonezko eta bi emakumezko. 2.800 metroko lasterketa horretan David Soto izan zen lehenengo herritarra. Ondoko taulan jaso ditugu euren denborak.



Izena	Denbora
David Soto.....	45.41
Cristina Villalobos.....	53.18
Ibon Serrano.....	53.22
Jose Anjel Agirre.....	55.50

Andres Alberdi.....	56.51
Alberto Iriondo.....	57.15
Anjel Mari Albizu.....	57.44
Iñigo Barrenetxea.....	1.00.12
Lydia Bakaikoa.....	1.03.51
Joseba Konde.....	1.15.28
Tomas Azpeleta.....	1.18.41

Morkaikorekin Pirinioetara irteera irailaren 20an

Morkaiko Mendizale Elkartek Pirinioetarako irteera antolatu du datorren astebururako. Neouville inguruan egingo dute trabesia, irailaren 20an eta 21ean. Lehenengo egunean Franzisko La Mongie eski estazio inguruan ibiliko dira, eta domekan Pic de Neouville mendira (3.091m) igoko dira. Interesatuak Morkaikoren lokalean eman dezakete izena, astelehen eta eguenetan 19:00etatik 21:00etara.

Saskibaloit taldea osatzeko neskak behar dira

Neska koadrila batek saskibaloit taldea osatzeko jendea behar du. 1995, 96 edo 97an jaiotako neskak behar dituzte taldea osatzeko. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 616 210 078 (Juan) edo 699 452 998 (Arantza).

Soraluzeko mendi itzulia

Soraluzeko Mendi Elkartek antolatuta, Soraluzeko II. mendi itzulia izango da irailaren 20an. Irteera goizeko 6:00etan izango da Plaza Berrian. Informazio gehiago: 943 751 029 telefonoan.

Lanbroa taberna Bruesa saskibaloit taldearekin

Lanbroa tabernak hartu du Donostiako Bruesa saskibaloit taldearen partidak ikustera joateko antolakuntza. Sarrerak erosteko aukera eta autobusa jarriko ditu. Bestalde, Bruesa taldeko bazkide egiteko interesatuak bertan jaso ditzakete izen-emate orriak. Bruesa saskibaloit taldeak iaz lortu zuen ACB Ligarako igoera.

ESKERTZA



2008ko abuztuaren 16an hil zen *Maria Loyola Garate* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LANA

ESKAERA

- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **680 456 935**
- Mutila obretan, garbiketa lanetan edo biitegian lan egiteko prest. ☎ **660 213 652**
- Neska lanerako prest. ☎ **638 520 765**
- Neska lanerako prest. ☎ **659 813 248**
- Emakumea etxeko lanak egin eta garbiketarako prest. Arratsaldez. ☎ **943 74 32 51**
- Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **639 505 373**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Umeak zaintzen esperientzia daukat. ☎ **943 53 16 08**
- Neska gaztea ostalaritzan edo umeak zainduz lan egiteko prest. ☎ **659 320 774**
- Mutila lanerako prest. Banatzaile moduan esperientzia. ☎ **638 344 377**
- Mutila lanerako prest. Obretan eta ostalaritzan esperientzia. ☎ **689 144 723**
- Emakumezko arduratsua gaixoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 03 65**
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **660 289 049**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia-duna. Erreferentzia eta papelekin. ☎ **686 521 598**
- LH, DBH, Batxilergo eta zikloetako klase partikularrak ematen dira. ☎ **653 717 972**

- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 441 505**
- Emakume arduratsua gaez nagusiak zaintzeko prest. ☎ **650 034 445**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. ☎ **659 639 296**
- Neska gaztea arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia-duna. ☎ **676 876 408**
- Neska sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **797 813 719**
- Mutila eskaintzen da konpainia egiteko. ☎ **689 144 723 / 663 159 751**

ESKAITZA

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. ☎ **652 76 18 81**
- Jatetxerako sukaldaria eta kamareroa behar dira. ☎ **943 74 31 96**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **625 467 634**
- Zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna batean zapatuetan lan egiteko. ☎ **679 276 164**
- Amari lagun egiteko pertsona behar dugu, egunean zazpi orduz. ☎ **619 792 014 / 688 610 903**
- Umea zaintzeko neska edo emakumea behar da. Goizez, orduka lan egiteko. ☎ **647 890 377**

ETXEBIZITZA

SALMENTA

- Buhardila salgai Altzolan. 50.000 euro. ☎ **943 74 34 92 / 625 708 042**

- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, igogailua, balkoiak, oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. ☎ **669 167 457**

ALOKAIRUA

- Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **696 246 962**
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarren. Premiazkoa. ☎ **664 616 681**
- Etxea alokatzen da Granadan, Albaicin auzoan. Informazio gehiago: www.casasolea.com

MOTORRA

- Hyundai Accent autoa salgai. 1999ko urrikoa, 113.000km. Egoera onean. 1.500 euro. ☎ **943 53 12 77**
- Opel Astra Caravana DTI salgai. 100 zaldi eta aire egokitua. ☎ **686 975 245**
- Golf-a salgai. 2002. urtekoa. Highline. 115 zaldi. 6. martxa. Estrak. 10.300 euro. 90.000 km². ☎ **653 735 849**

GARAJEAK

- Bi pisuko garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 23 44**
- Garajea alokatzen da San Roke 5ean. ☎ **943 74 14 36**

BESTELAKOAK

- Ileapaindegia alokairuan Eibarren. Guztiz hornitua. ☎ **679 425 467**

- Goian bego -



Delfina Arriola Lete

2009ko uztailaren 7an hil zen

*Benetako euskaldun
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



EAKO ALDERDIKIDEAK



• Zorionak, **Gorane**, zure seigarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, bi urte-txo egin dituzulako. Familiakoen partez patxo bat.



• Zorionak, **Maria**, hilaren 10ean 68 urte egin zenituelako. Familiakoak, seme-alabak eta bilobak.



• Zorionak, **Xiker**, zazpi urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Alex**, bederatzi urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Asierreren partez.



• Zorionak, **Ihintza**, hiru urte egin dituzulako. Oso ondo pasatu genuen. Etxeko- en eta Aioraren partez.



• Zorionak, **Maddi**, hilaren 13an lau urte handi egingo dituzulako. Oso ondo pasa! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ikertxo piper-txo**, abuztuaren 19an hiru urte egin zenituelako. Etxeko- en partez



• Zorionak, gure etxeko **printzesari** bost urte egin dituelako. Etxeko- en eta batez ere lonen partez.



• Zorionak, **printzesa**, abuztuaren 14an bost urte egin zenituelako. Aiton- amonen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Xabi**, etxeko- en partez.




• Zorionak, **Angel**, lau urte egin dituzulako. Familiako- en eta bereziki, Oskaren partez.



• Zorionak, **Julen** mutil handi, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familiako- en partez.



• Zorionak, **Izzaro**, aitaxo eta amatxoren partez bi urte egin zenituelako. Muxu handi bat, sorgin txiki!



• Zorionak, **Ainhoa**, familiako- en partez.



• Zorionak etxeko **printzesa**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu potolo bat familiako- en partez.



• Zorionak, **Urtzi**! Zazpi muxu potolo etxeko- en partez.




• Zorionak, **Unai**, abuztuaren 26an zazpi urte egin zenituelako.



• Zorionak, **Maialen**, abuztu- an urtea egin zenuelako. Aitaxo eta amatxoren partez. Maite zaitugu.



• Abuztuaren 28an zazpi urte egin zituen etxeko dantzariak. Zorionak, **Norral** Etxeko- en partez.



• Zorionak, zuen urrezko ezteietan. Muxu mordo bat familiako- en partez.




• Zorionak, **Luis Castilla eta Ana Molin**, ezkondu zinetela 53 urte bete direlako. Segi horrela!



• Zorionak, **Danel eta Lara**, abuztu- an urteak egin dituzuelako. Muxu handi bana etxeko- en partez.



• Zorionak, **Saioa eta Iratil** Muxu pila bat familiako- en partez



• Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Zorionak, **bikotel** Familia eta lagunak.



• Zorionak, **Yolanda eta Ibai** etxeko- en partez.



• Zorionak, **Ainhoa, Mikel eta Marina Bergara**. Etxeko- en eta lagun- en partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguzten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

OKINDEGIA

14 domeka **DOÑA MERCEDES**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 12 Fernandez
- 13 Garitaonandia
- 14 Garitaonandia
- 15 Zabaleta
- 16 Etxeberria (Errosario)
- 17 Ibañez
- 18 Garitaonandia
- 19 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



«El baño del Papa»

18, eguena: 22:15
20, zapatua:
19:00-22:15

Uruguai, 2007. Zuzendaria: Enrique Fernandez eta Cesar Charlone. Iraupena: 97 minutu
Aktoreak: Cesar Troncoso, Virginia Mendez, Virginia Ruiz, Mario Silva . Generoa: drama.
Brasilekin mugan dagoen Melo herrirak Juan Pablo II.a aita santua etortzeko zain dago.

50.000 lagun inguru espero dituzte. Herriko bizilagunak pobreak dira gehienak, eta bada-kite bisita horiek zer ekarriko duen: turistek jan nahiko dute, edan, opariak erosi... Azken batean, Meloko biztanleak zoriontasun materialaren zain daude.

erakusketak

19 barixakua

19:00 Emilia Nogalesen margoak

Emilia Nogales margolariak “Zuretzat” erakusketa inauguratuko du. Kultur Etxean, urriaren 5era arte.

lehiaketak

30 martitzena

Gomendatzen dizut

Oporretan joateko lekuen gomendioak egin behar dira. Edozeinek hartu dezake parte, eta nahi beste gomendio bidali daitezke. Gomendioak aurkezteko azken eguna irailaren 30a da. Informazio gehiago: 943 741 461 telefonoan edo gib@elgoibar.org

ikastaroak

12 barixakua

19:00 Lehen laguntzak

Zubibai elkarteak antolatuta, Altolako zaharren egoitzan. Izena emateko: 652 714 062 Hilaren 15ean eta 17an ere eskainiko da ikastaroa.

aisialdia

12 barixakua

16:00 Atxutxiamakako udaldia

Argazkiak, bideo emanaldiak, eskulanak... Kultur Etxeko erakusketa gelan.

17:30 Kiribilka egitasmoa

Bitik sei urtera arteko haur-errentzako eta euren guraso-errentzako. Plaza Handian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

13 zapatua

11:00etan eta 17:00etan

Atxutxiamakako udaldia

Argazkiak, bideo emanaldiak, eskulanak... Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Antolatzailea: Atxutxiamaka



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 12

Udalekuetara joan ziren gazteekin afari merienda eta argazki emanaldia. 19:00

ZAPATUA 13

Topagunea eta mahai jolasak 17:00

DOMEKA 14

Aurreko ikasturteko argazki emanaldia. 17:00

Ekintza horiez gain, eguazteneko txoko pribatua taldeka alokatzeko aukera dago, lagunekin intimitatean egoteko. Sukaldea eta ordenagailuak ere gazteen eskura daude.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 12

Talde jolasak 17:30

ASTELEHENA 15

Pelikula 17:30

MARTITZENA 16

Mahai jolasak 17:00

EGUAZTENA 17

Ludo bidaiariaren istorioa 18:00

EGUENA 18

Eskulanak 17:00



Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Uztaileko irabazlea:
→ **IRATI MARCOS**

Abuztuko saria:
HILEKO PLANTXAK

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Gomendatzen dizut sariketa

Truka ezazu bidaiatzeko informazio praktikoa!

- Sariak: ikus entzunezko materiala edo gustuko oporaskriboa.
- 2 kategoria: 12-17 urte eta 18-34 urte
- Ekarr gomendioa Gazte, Gurea edo Idatzi www.aizue.com blogean
- Epea: irailaren 30a

Animatu zaitez!

«Aritmetica emocional»

19, barixakua: 22:15
21, domeka:
19:00-22:15
22, astelehena: 22:15

«Encarnacion»

23, martitzena: 22:15
25, eguena: 22:15

«Buda explotó por amor»

24, eguaztena: 22:15
26, barixakua: 22:15

txatxaran



Argitze, Joanes eta Maialen, Gaztelekuko hezitzaileak.

argitze ezenarro

Oporren ostean, aste honetan bertan berriro zabaldu dute Gaztelekua. Zerbitzu hobea eta zabalagoa emateko lanean ari direla azaldu du Argitze Ezenarro koordinatzaile eta hezitzaileak: bloga, Messengerrean helbidea, erakusketa txokoa eta ikusentzunezko gelan berrikuntzak izango dira, besteak beste. Hezitzaile berria ere izango da: Joanes Rodriguez. Barixaku eta zapatuetan ordubete geroago itxiko dute, 21:00etan.

“Gaztetxoek ez dute aspertzeko aitzakiarik”

Ikasturte honetan zein izango da Gaztelekua eskaintza?

Hasteko, eguneroko zerbitzuari garrantzi handiagoa emango diogu. Eskaintzak hobetu, zabaldu eta gehiago landu nahi ditugu. Esaterako, blog bat sortzeko asmoa dugu, Messengerrean ere helbide bat sortuko dugu gazteekin komunikazioa hobetzeko. Eguneroko zerbitzu horrez gain, ekintza antolatuak izango ditugu: ikastaroak, irteerak, asteburuko egonaldia eta abar. Zerbitzua ez da mugatuko ordu horietara, ekintza antolatuak daude zabalatzeko aukera ere izango baita. Bestalde, teknologia berrien atalean, hezitzaile berriak aukera ematen digu gazteei gehiago laguntzeko lanak egiten, edo sormen atalean teknologia berrietatik tira egiteko.

Lokalean ere berrikuntzak izango dira, ezta?

Ikusentzunezko gelan taldeka alokatzeko aukera izango dute. Horrez gain, erakusketa txokoa bat izango dugu, eta garaian garaian gaia aldatu eta gunen aldaketa

joango gara: gazteen intereseko gaiak edo ikasketekin bat datozenak sartzeko saiatuko gara.

Zer ordutegi izango duzue?

Asteartetik ostegunera, eta igandean, 17:00etatik 20:00etara. Ostiral eta larunbatean ordubete gehiago izango dugu: 21:00etara arte egongo da zabalik, gazteen eskaria betetzeko asmoz, eta hori da berrikuntza. Astelehenean itxita egongo da Gaztelekua.

Hezitzaile berrien bat izango dela esan duzu.

Aurten hiru hezitzaile egongo gara, baina beti bi egongo gara zerbitzu orduetan. Aurten hiruron artean egingo dugu lan banaketa. Maialen Astigarragak eta biok jarraituko dugu, eta Joanes Rodriguez da fitxaje berria: elgoibartarra da eta gazte askok ezagutzen du kiroltako entrenatzaile eta Mauxitxa txarangako kide delako. Indarrez sartu da, gogoz.

Gazteei zer esango zenieke?

Animatzeko. Proposamenak jasotzeko prest gaude. Beharrak asetzeko gauzak

antolatzen saiatuko gara: ikastetxeko lanak direla edo aisialdirako ekintza potentzeren bat dela. Euren iritzia jasotzea gus-tatzen zaigu, eta ea parte hartzen duten antolatutako gauzetan. Gure arteko komunikazioa zabalduko da, eta blogaren bidez eurekin hartu-emana sendotzeko asmoa dugu. Messengerrean eta blogean parte hartzeko eskatuko nieke.

Eta gurasoei?

Seme-alabek ez dutela aitzakiarik aspertzeko. Hau proiektu sozio-hezitzaile bate-tik sortutako zerbitzua da. Asmoa da iaz-ko sarreraren ondoren zerbitzua hobet-zen eta zabalitzen joatea. Harreman berriak egingo dituzte gazteek eta beste ko-adriletakoekin elkartzeko aukera izango dute, lagun berriak egiteko aukera. Azken batean, tresna bat da, herrian eragile eta partehartzaile izan daitezten. Gurasoekin harremana ere garrantzitsua zaigu, gaz-teen nondik norakoak jakiteko. Arazoren bat izan dugunean kontaktuan jarri izan gara eurekin. Guk eskertzen ditugu be-raien proposamenak.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...
Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).
San Bartolome, 25
Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9
Tel: 943 74 85 93 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
Mendaro
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21
Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)
Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behe (Ermua)
Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com
webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, drantzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 74 07 70
Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel. 943 53 19 53
669 565 745
Goiz eta arratsaldez
Jausoro, 6 behe

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30/
15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriko egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe
Tel: 943 74 16 45
Ordutegia: 9:30-13:30/
15:30-19:30



Euskal kultura tradizionala ezagutuz

ikastaroa

Ezagutzen ez dena ezin delako maitatu

Irakaslea: Xamar



20 orduko ikastaroa

Asteazkenetan

(urriaren 1etik abenduaren 3ra)

Prezioa: 30 euro

(15 euro ikasle eta langabetuentzat)

Plaza mugatuak

Izena emateko azken eguna: irailak 22

ZER LANDUKO DA?

Etxea

Herri egiturak

Inauteriak

Ahozko kultura

Mitologia eta sinismenak

Euskara

...

Izena emateko eta informazio gehiago:

943 74 16 26 (Imanol)

e-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

Babeslea:



Elgoibarko Udala